



→ **DISTANTZIA:** 7,7 KM

⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 4 H 10 MIN

↗ **DESNIBELA:** 765M


LARRONDO (1.703 m)

▶ **HASIERA:**
NA-137. Km 43



OHARRA:

- Goi mendiko ibilbidea da.
- Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
- Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtaro horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Larrondoko gailur leun eta belartsua eremuko igoera ederrenetariko bat da, Arrakoko trikuharririk hasita eta ehunka urteko pagadia zeharkatuta.

Arrakon hasiko gara, eta trikuharriaren eta Arrakoko Ama Birjinaren baselizaren ondotik igaroko gara SL-NA 80rekin eta Zarzakuleako GR 321.1rako saihesbidearekin bat eginez. Metro batzuk eginda, S L-NA 80 eskuinean utziko dugu eta Zarzakuleako saihesbidetik joanen gara. Sanson bordaren ondoren pinudian sartuko gara igoera gogor batetik, eta aurrerago ehunka urteko pagadi ederretik joanen gara goiko aldeko mendi-hegal belartsuetara heldu arte. Handik Lapatiako leporantz zuzenduko gara. Metro batzuk lehenago, Zarzakuleako lotura GR 321.1 Kontrabandisten bidearekin elkartuko da; bide hau gurutzatu eta Lapatiako lepoan izanen gara.

Hegoalderantz, Larreetan gora eginez, Larrondoko gailurrera helduko gara (1.703 m)..